

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure itunak enpresatik kanpo dauden hainbat elkarterekin egingo ditugu, gure negozio-eredua optimizatu eta baliabideak ahalik eta merkeen eta azkarren eskuratzeko.

Gurpil-azala lortzeko:

- Bizikleten gurpilak saltzen edo egiten dituzten enpresa batekin aliatu gaitzke gomazko egitura lortzeko, hau da, gurpil-azala. Askotan enpresa hauek haien produktuak botatzen dituzte egoera onean ez daudelako . Gure enpresak produktu horiek berrerabil ditzake. Haiekin lan egiten badugu, zuzenean guk nahi dugun produktua eska genezake eta ez gurpila bere osotasunean, gure enpresari ez baitzaio interesatzen gurpilak gurpil azala ez den beste egiturarik jasotzea.
- Txatartegi batean enpresek (gurpil-azalak gaizki daudelako) eta jendeak bizikleta ugari botatzen dituzte urtero, hori baliatuz, txatartegiekin ere aliatu gintezke bota dituzten gurpil-azal horiek berrerabiltzeko.

Torlojuak, ainguralekuak eta poleak lortzeko:

- Metalezko torlojuak edo antzerako lanabesak egiten dituzten edo saltzen dituzten enprekin aliatu behar gara, adibidez, burdindegri batekin.

Kamerak lortzeko:

- Kamera gure produktuaren oinarritzko elementua da eta horregatik beharrezkoa dugu kamerak egiten dituzten enpresa batez hornituak izatea, hau oso handia ez den bitartean, gu xurgatuak ez izateko. Kamerak ez ditu oso kalitate oneko irudiak zergatik grabatu, iraunkorra izatea nahiago dugu. Etengabe mugitzen egongo da eta horregatik kolpeak jasateko prest egon beharko da.

Informatikan aditua den norbait: Informatikaren munduan oso aditua den norbait aurkitzea beharrezkoa da, gure produktuaren helburua beteko duen aplikazio bat diseinatu dezan. Bere lana funtsezkoa izango da, proiektuaren atal garrantzitsuenetariko bat delako